	<i>Gainontzekoak</i>	1.438	1.469	2.292	5.198
	GUZTIRA	38.474	79.700	39.425	157.598

Iturria: Kordoi Inkesta.


³ Ebroko bailara. Izenpe honen baitan Kataluniako eta Aragoiko Autonomi Erkidegoak sartzen dira.

⁴ Mugakideak diren probintziak: Kantabria, Nafarroa, Burgos eta Errioxa.

⁵ Datu hauek jatorri zein helmugei dagozkienei egiten die erreferentzia. Hau da, Araba- Kantabria fluxuak bi noranzkoetan gehitzen dira.

Arrazoen arabera, joan-etorri mota hauen sortzaile nagusiena lana litzateke %52,8 portzentajearekin, jarraian, kudeaketa pertsonal eta familiarrak, eta neurri txikiagoan, aisia, kasuen % 15,6 bilduz. Gainerako arrazoiek inolako kasuetan ez dute %6a gainditzen.

Grafiko 5 Ibilgailu arinean burututako kanpoaldeko joan-etorri nazionalak helburuaren arabera. Batez besteko laneguna. 2011.



Iturria: Kordoi Inkesta.

3.1.1.4 Kanpoaldeko joan-etorri internazionalak

2011n batez besteko lanegun batean, ibilgailu arinean, EAE eta beste herrialdeen artean pertsonak burututako joan-etorrien zifra 62.443an kokatzen da. Zifra hau 2006ko datuekin alderatuz gero, %17ko areagotzea nabaritu da.

EAEko lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoak biltzen ditu praktikoki fluxu hauek guztiak (%90,3) Frantziarekin duen gertutasuna eta bi eremuetako erlazio sozial eta ekonomikoak direla eta. Bizkaiak joan-etorri hauen %7,8 sortzen ditu eta Arabak %2,0.

Frantzia, lurralde mugakidea, fluxu internazionalen egituraketaren eremu geografiko garrantzitsuena da joan-etorrien % 91,2 biltzen baitu, Portugalek %6,4 ordezkatzen du eta gainontzeko europar herrialdeek %2.

Taula 12 Ibilgailu arinean kanpoaldeko joan-etorri internazionalak. Batez besteko laneguna. 2011.


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Frantzia	%1,3	%5,7	%84,2	%91,2
Portugal	%0,4	%1,4	%4,6	%6,4
Gainontzeko Europa	%0,2	%0,7	%1,1	%2,0
Gainerako Mundua	%0,1	%0,0	%0,4	%0,5
GUZTIRA	%2,0	%7,8	%90,3	%100,0

Iturria: Kordoi Inkesta.



Nazioarteko barnealdeko nahiz kanpoaldeko joan-etorriak burutzen dituzten pertsonen kasuan ez bezala, kasu honetan, lana ez da arrazoi nagusia, baizik aisia (%37,6), lanbide arrazoiak bigarren postu okupatzen dute (%18,4). Azpimarratzekoa da inkestan euren joan-etorrien arrazoa ez dakiten edota erantzuten ez dutenen portzentajea (%23,2).

Grafiko 6 Ibilgailu arinean kanpoaldeko joan-etorri internazionalak helburuaren arabera. Batez besteko laneguna. 2011.



Iturria: Kordoi Inkesta.

3.1.1.5 Iragaitzako joan-etorria


Batez besteko lanegun batean ibilgailu arinean euskal errepideetako iragaitzako joan-etorrien zenbatekoa 15.673 zifretara igo da. Pertsona hauetatik %60,9ak jatorria gainontzeko Autonomi Erkidegoetan du eta geratzen diren %39,1 atzerritarrek dira. Oso esanguratsuak dira jatorria EAeko probintzia mugakideetan duten zirkulazioak (Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Burgos) %32,8 suposatuz, frantsesen kasuan ere %24,6.

Taula 13 Ibilgailu arinean iragaitzako joan-etorriak. Batez besteko laneguna. 2011.

HELMUGA		Espainia					Frantzia	Portugal	Gainontzeko Europa	Guztira
		Erdigunea	Erlaitz Kantabriarra	Mugakidea	Gainontzeko Espainia	Ebroko bailara				
JATORRIA										
Espainia	Erdigunea			660			765		209	1.634
	Erlaitz Kantabriarra			150	17	215	182		107	671
	Mugakidea	660	150	2.107	302	427	1.305	21	178	5.151
	Gainontzeko Espainia		17	302			658		81	1.058
	Ebroko bailara		215	427			173		214	1.029
Frantzia		765	182	1.294	658	173		770		3.842
Portugal				21			770		350	1.141
Gainontzeko Europa		209	107	186	81	214		350		1.147
GUZTIRA		1.634	671	5.147	1.058	1.029	3.853	1.141	1.140	15.673

Iturria: Kordoi Inkesta.

Iragaitzan dauden pertsonen joan-etorri hauek burutzeko arrazoi nagusia aisia dela diote (%34,1), jarraian lana dela (%31,5), eta neurri txikiagoan, kudeaketa pertsonalak eta familiarrak (%14,1). Azpimarratzekoa da inkestatutako pertsonen portzentaje altu batek ez duela erantzuten edo ez dakiela burutzen duen joan-etorriaren arrazoia zein den (%16,3).

Grafiko 7 Ibilgailu arinean iragaitzako joan-etorriak helburuaren arabera. Batez besteko laneguna. 2011.*Iturria: Kordoi Inkesta.*



3.1.2 Pertsonen garraioa autobusez

Atal honetan 2011.urtean zehar EAEn autobus zerbitzuen eskariaren inguruko datuak biltzen dira, hain zuzen, zerbitzu erregular, urbano eta herriartekoei eta lineaz kanpoko zerbitzuei dagozkienak. Atal hau burutzeko honako informazio iturriak erabili dira: errepide bidezko garraio operadoreen zatirik handienetik lortutako datuak, etxebizitza inkesta eta garraio terminalei burututako inkesta. Azken iturri honek ez ditu barne hartzen lineaz kanpoko zerbitzuetan burututako joan-etorriak, baizik, soilik hiru hiriburuetakoko autobus geltokietako zerbitzu erregularreko ibilbide luzeetako mugimenduak biltzen ditu. Etxebizitza inkestatik EAEko egoiliarrek burututako joan-etorrien informazioa lortu da, eta autobus terminaletako inkestatik egoiliarrek EAetik kanpo burututako joan-etorrien inguruko informazioa bildu da, gainontzeko Estatukoarena nahiz atzerrikoarena.

2011n batez besteko lanegun batean autobusez burututako joan-etorrien zenbatekoa 252.540 zifretara igotzen da. Horietatik zati handi bat EAEko barnealdeko joan-etorriei dagokie (%98,6), batez ere, udalerriz izaera izanik, eta bitartean, kanpoaldeko joan-etorriak soilik %1,3k burutzen ditu eta geratzen den %0,1 iragaitzan aurkitzen da.


Taula 14 Joan-etorriak autobusez motaren arabera. 2011

		BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
EAE barnealdekoak	Urbanoak	330.955	%63,0
	Herriartekoak	187.258	%35,6
	Guztira barnealdekoak	518.213	%98,6
Kanpoaldekoak		6.994	%1,3
Iragaitzakoak		332	%0,1
GUZTIRA		525.540	%100,0

Iturria: Etxebizitza inkesta eta autobus terminaletako Inkesta. Terminaletako inkestak soilik bidaiariak zerbitzu erregularrean burututako joan-etorriak biltzen ditu, lineaz kanpoko zerbitzuetan burututakoak alde batera utziz.

Autobusez burutzen diren joan-etorrien arrazoi nagusiak praktikoki parean aurkitzen dira, hain zuzen, lana (%33,6) eta ikasketak (%33,5), azken hau mugimendu okupazional gisa ere deiturikoa. Eta bigarren postuan kudeaketa pertsonal eta familiarrak (%10,9) eta aisia (%10,8) kokatzen dira.

Grafiko 8 Joan-etorriak autobusez helburuaren arabera. Batez besteko laneguna. 2011.



Iturria: Etxebizitza inkesta eta autobus terminaletako Inkesta.

3.1.2.1 Joan-etorri urbanoak autobusez

Egunero autobus erregularretan edo lineaz kanpokoetan 330.955 joan-etorri urbano burutzen dira, non garraio modal honetan guztira egiten diren joan-etorrietatik %63,3 ordezkatzen baituten. Lau bidaietatik hiru zerbitzu erregularrean burutzen dira (246.496), eta gainerakoak lineaz kanpoko zerbitzuetan (84.460).

Taula 15 Joan-etorri urbanoen banaketa erabilitako zerbitzu tipologiaren arabera 2011.

	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Autobus erregularra	246.496	%74,5
Lineaz kanpoko autobusa	84.460	%25,5
TOTAL	330.955	%100,0


Iturria: Etxebizitza inkesta.

Hiru euskal hiriburuetakoko zerbitzu urbano erregularrei dagokienez, operadoreen datuek agerian uzten dute Donostia dela biztanleriak autobus urbanoaren erabilera handiena ematen dion hiriburua, urtean biztanleko guztira 159 bidai izanik, modu horretan Bilboko 72 bidaiak bikoiztuz eta Vitoria-Gasteizeko 47 bidaiak hirukoiztuz. Hala ere, kontuan izan behar da Bizkaiko zein Arabako hiriburuak garraio modal publiko alternatiboak dituztela, batez ere, Bilboko eskaintza izanik esanguratsuena (Metroa, tranbia, RENFE aldiriak, FEVE y Euskotren), baina Vitoria-Gasteizek ere barnealdeko joan-etorriak burutzeko tranbia erabilgarri du.

**Taula 16 Hiru hiriburuetakoko joan-etorriak autobus urbanoz. 2011**

	URTEKO JOAN-ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK
Bilbo	25.424.770	84.951
Donostia	29.015.007	91.889
Vitoria-Gasteiz	11.090.678	43.603
GUZTIRA	65.530.455	220.443

Iturria: Bilbobus, Dbus y Tuvisa.

Grafiko 9 Urteko eta biztanleko hiruko euskal hiriburuetakoko joan-etorriak autobus urbanoz. 2011.urtea

Iturria: Bilbobus, Dbus, Tuvisa y Eustat.

3.1.2.2 Herriarteko joan-etorriak autobusez

Batez besteko lanegun batean, zerbitzu erregularrak eta lineaz kanpokoak kontuan hartuz, autobusez herriarteko 187.258 joan-etorri burutzen dira. Joan-etorri hauetatik %91,1 probintzia beraren baitan burutzen dira, eta gelditzen den %8,9 herriarteko joan-etorriei dagokie.



Taula 17 Joan-etorriak herriarteko autobusez joan-etorriaren tipologiaren arabera. 2011.

		BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
EAE barnealdekoak	Eskualde barnekoak	133.257	%71,2
	Lurralde barnekoak	37.264	%19,9
	Lurraldeen artekoak	16.737	%8,9
GUZTIRA		187.258	%100,0

Iturria: Etxebizitza inkesta eta terminaletako Inkesta. Terminaletako inkestak soilik bidaiariak zerbitzu erregularrean burututako joan-etorriak biltzen ditu.

Joan-etorrien bi heren praktikoki zerbitzu erregularretan burutzen dira, zeinak lanegunetan 126.748 pertsona erabiltzaile suposatzen baitituen, eta bien bitartean, lineaz kanpoko zerbitzuak guztira 60.509 zifretara igotzen dira.

Taula 18 EAEn autobusez burutzen diren herriarteko joan-etorrien jatorri-helmuga matrizea. 2011

BIDAIK GUZTIRA

J/H	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Araba	12.069	4.060	1.153	17.281
Bizkaia	3.884	94.699	3.423	102.006
Gipuzkoa	1.469	2.748	63.754	67.970
GUZTIRA	17.422	101.506	68.330	187.258

BIDAIK ZERBITZU ERREGULARRETAN

J/H	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Araba	2.138	1.054	573	3.766
Bizkaia	879	70.211	2.529	73.619
Gipuzkoa	736	1.854	46.774	49.364
GUZTIRA	3.753	73.119	49.876	126.748

BIDAIK LINEAZ KANPOKO ZERBITZUETAN

J/H	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Araba	9.930	3.005	580	13.516
Bizkaia	3.005	24.488	894	28.387
Gipuzkoa	733	894	16.980	18.607
GUZTIRA	13.669	28.387	18.454	60.509

Iturria: Etxebizitza inkesta eta terminaletako Inkesta. Terminaletako inkestak soilik bidaiariak zerbitzu erregularrean burututako joan-etorriak biltzen ditu, lineaz kanpoko zerbitzuetan burututakoak alde batera utziz.

3.1.2.3 Kanpoaldeko joan-etorriak autobusez

Batez besteko lanegun batean EAEn autobusez kanpoaldeko joan-etorriak burutzen dituzten pertsona bidaiarien kopurua txikia da eta soilik 6.994 zifretara igotzen da (%1,3). Joan-etorri hauen %59,5 zerbitzu erregularretan burutzen dira, aldiz, lineaz kanpoko zerbitzuen bidez 2.834.

Taula 19 EAEko kanpoaldeko joan-etorriak autobusez..2011.

ZERBITZU MOTA	LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Lineaz kanpoko autobusa	2.834	%40,5
Autobus erregularra	4.160	%59,5
GUZTIRA	6.994	%100,0

Iturria: Etxebizitza inkesta eta terminaletako Inkesta. Terminaletako inkestak soilik bidaiariak zerbitzu erregularrean burututako joan-etorriak biltzen ditu.

3.1.2.4 Iragaitzako joan-etorriak autobusez

Batez besteko lanegun batean EAEko lurraldean autobusez iragaitzan soilik 332 pertsona aurkitzen dira. Joan-etorri hauek guztiak zerbitzu erregularrei dagozkie, izan ere, datua erdietsi den terminaletako inkestak soilik linea kontzesionarioen informazioak biltzen ditu, alde batera utziz lineaz kanpoko zerbitzuenak.

Taula 20 EAEn iragaitzako joan-etorriak autobusez. 2011.

ZERBITZU MOTA	LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Autobus erregularra	332	%100,0
GUZTIRA	332	%100,0

Iturria: Etxebizitza inkesta eta terminaletako Inkesta. Terminaletako inkestak soilik bidaiariak zerbitzu erregularrean burututako joan-etorriak biltzen ditu, lineaz kanpoko zerbitzuetan burututakoak alde batera utziz.

3.1.3 Pertsonen errepede bidezko garraioaren laburpena

2011n batez besteko lanegun batean EAEn errepede bidezko garraio modalean (ibilgailu arinak eta autobusak barne hartuz) burututako joan-etorrien zenbatekoa 2.940.540 zifretan kokatzen da. 2006ko datuekin alderatuz, zifra honek %5,8ko beherakada izan du. Joan-etorri hauen %91,7 EAEko barnealdekoak dira eta soilik %7,7 dira kanpoaldekoak. Iragaitzako joan-etorriek soilik geratzen den %0,5 ordezkatzen dute.

Taula 21 Errepide bidezko joan-etorriak. Batez besteko laneguna. 2011

	IBIL. ARINA	AUTOBUSA	GUZTIRA
Barnealdekoak	2.179.286	518.213	2.697.499
Kanpoaldekoak	220.042	6.994	227.036
Iragaitzakoak	15.673	332	16.006
GUZTIRA	2.415.000	525.540	2.940.540


	IBIL. ARINA	AUTOBUSA	GUZTIRA
Barnealdekoak	%80,8	%19,2	%100,0
Kanpoaldekoak	%96,9	%3,1	%100,0
Iragaitzakoak	%97,9	%2,1	%100,0
TOTAL	%82,1	%17,9	%100,0

Iturria: Etxebizitza inkesta eta terminaletako Inkesta.

Ibilgailu arinean burutzen diren joan-etorriek errepide bidez burutzen diren joan-etorri guztien %82,1 biltzen dute, autobusari gelditzen den %17,9 dagokio. Barnealdeko joan-etorrietan autobusak %19,2ko kuota du, eta ibilgailu arinak %80,8. Kanpoaldeko joan-etorrietan, batez ere, ibilgailu arina erabiltzen da (%96,9) eta autobusa aldiz, %3,1.

Errepide bidez sexuaren arabera erabiltzen diren garraio modal ezberdinen erabilerari dagokionez, nahiz eta datuek agerian uzten duten emakumezkoen eta gizonezkoen kolektiboetan ibilgailu arina dela gehien erabiltzen den modala, ezberdintasunak nabaritzen dira barneratze kuotari dagokionez. Hori dela eta, gizonezkoen %87ak joan-etorriak ibilgailu arinean egiten ditu eta emakume bidaiarien kasuan zifra ehuneko 13 puntuetan jaisten da (%74,2). Alderaketarekin jarraituz, emakumezkoek burututako bidaien %25,8 autobusez izaten da eta gizonezkoen kasuan portzentajea %12,2an kokatzen da.

Taula 22 Errepide bidezko joan-etorrien banaketa sexuaren arabera.



Iturria: Etxebizitza inkesta eta terminaletako Inkesta. Elaborazio propioa

EAEko errepideetako batez besteko abiadura

Atal hau burutzerakoan Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010.urteko errepide foraletako sareen abiadurari buruz argitaratutako informazioa erabili da



Taula 23 Gipuzkoako errepideetako batez besteko abiadura. 2010.urtea

BATEZ BESTEKO ABIADURA (Km/h)	
Lehentasunezko sarea	78,9
Oinarrizko sarea	63,7

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Gipuzkoan lehentasunezko sareen baitan dauden errepideetako batez besteko abiadura 78,9Km/h da, autobide eta autobia (92,6 Km/h) edo bi norabidetako errepideen artean ezberdintasun nabarmenak egonaz (60,7 Km/h). Bitartean, oinarrizko sarean batez bestekoa 63,7 Km/h kokatzen da.

Bizkaian lehentasunezko sarearen baitan dauden gaitasun altuko bideetan lortzen da abiadura handiena (83,4 km/h) eta oinarrizko sareetan 73,2.

Taula 24 Bizkaiko errepideetako batez besteko abiadura. 2010. urtea

BATEZ BESTEKO ABIADURA (Km/h)		
GAITASUN ALTUA	Lehentasunezko sarea	83,4
	Oinarrizko sarea	73,2
BIDE KONBENTZIONALA	Lehentasunezko sarea	59,0
	Oinarrizko sarea	68,2

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

3.2 Aire bidezko garraioa

Atal hau burutzeko erabili den informazioa AENAK erraztu duena izan da, hiru euskal hiriburuetako aireportuetako hegaldien iriste eta irteeren joan-etorri kopurua barne hartzen ditu.

EAEEn aireportu bakoitzak erabilera ezberdina du. Loiuko aireportua da erreferentea bidaiarien zirkulazioari dagokionez eta berak biltzen ditu eskaintza nazional eta internazional gehienak. Erabiltzaileen kopurua dela eta, Loiuk hamabosgarren postua eskuratzen du Espainiako aireportuen artean, eta mugakideak diren probintzietatik bidaiariak erakartzeko gaitasuna du, eta horrek, Espainiako ipar-erdi zonaldean halako erreferente rola eskuratzea ahalbidetu dio, izan ere, Santiago, A Coruña edo Santander bezalako aireportuek baino bidaiarien kopuru altuagoa baitu.

Hondarribiko aireportuak, ordea, bertako edo lekuko rola eskuratu du, soilik bidaiarien hegaldi nazionalak baititu. Azkenik, Forondakoak merkantzien garraiorako orientazio argia du,



maniatutako tonei dagokienez Estatuko aireportuen artean laugarren posizioan kokatzen baita, baina pertsona fluxu oso murrizak ditu.

3.2.1 Pertsonen urteko mugimendua


EAEko bidaiarien airezko zirkulazioak etxetiar osagai garbia du. Lau bidaietatik hiru nazionalak dira. EAEko aireportu erreferentean Loiuko aireportuaren rola sendotzen da, izan ere, joan-etorrien %90 baino gehiago biltzen baititu, bitartean, Hondarribiak %6,6 biltzen ditu eta Forondak %0,9ko rol xumea eskuratzen du.

Taula 25 Euskal aireportuetako urteko joan-etorriak iragaitzako tipologiaren arabera. 2010.urtea.

ZIRKULAZIOA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA
	JOAN-ETORRIAK	%	JOAN-ETORRIAK	%	JOAN-ETORRIAK	%	JOAN-ETORRIAK
Etxetiarra	37.380	%1,2	2.853.944	%90,1	275.295	%8,7	3.166.619
Internazionala	2.374	%0,2	1.019.995	%99,6	1.663	%0,2	1.024.032
GUZTIRA	39.754	%0,9	3.873.939	%92,4	276.958	%6,6	4.190.651

Iturria: Aena.

Grafiko 10 EAEko joan-etorriak aireportuaren arabera. 2010.urtea



Iturria: Aena.



3.2.2 Batez besteko lanegun bateko joan-etorriak hegazkinez

2010.urtean hiru euskal hiriburuek batez besteko lanegun batean 14.451 pertsonen mugimendua erregistratu zuten, zeinak 2006ko datuekin alderatuz %26ko gorakada suposatzen baituen. Gorakada hau batez ere, Loiuo aireportuan erregistratutakoari zor zaio.

Taula 26 Euskal aireportuetako joan-etorriak. Batez besteko laneguna. 2010.urtea

ZIRKULAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Etxetiarra	129	9.841	949	10.919
Internazionala	8	3.517	6	3.531
GUZTIRA	137	13.358	955	14.451

Iturria: Aena.

3.2.3 Joan-etorrien jatorria eta helmuga

Jatorriaren eta helmugaren arabera joan-etorrien motei dagokienez, %75,6 nazionala da, %17,8 Schengen⁶ akordioaren sinatzaileen Europa Batasuneko herrialdeetara, eta %5,9 Schengen akordioaren baitan ez dauden Europako herrialdeetara. Azkenik, %0,7, gainontzeko munduko herrialdeei dagokiena da.

Taula 27 EAEko aireportuetako joan-etorriak jatorri/helmugaren arabera. Batez besteko laneguna. 2010.urtea

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Nazionala	129	9.841	949	10.919
EB Schengen	3	2.569	4	2.576
EB ez Schengen	1	772	-	773
Gainontzeko Europa	2	83	-	85
Gainontzeko internazionala	2	93	2	97
GUZTIRA	137	13.358	955	14.451

Iturria: Aena.


⁶ Europa Batasuneko Schengen herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Italia, Luxenburgo, Portugal y Suitza

Schengen herrialdeak, ez EB: Islandia, Norvegia.

EBko herrialdeak, ez Schengen: Zipre, Eslovenia, Eslovakia, Estonia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika.



Grafiko 11 EAEko aireportuetako joan-etorriak tipologiaren arabera. Batez besteko laneguna. 2010.urtea



Iturria: Aena.

3.2.4 Aire bidez joan-etorrien ezaugarriak

Bidaiaren arrazoiari dagozkion datuak, aireportura joateko erabilitako garraio bidea, udalerrri eta probintzia jatorriak eta beste aireportuekin pertsonen zirkulazioa bezalako datuak, 2011ko Terminaletako Inkestaren bidez eta "Bilboko Aireportuko Inkestaren Emaizten Urteko Txostena (2007)"etik eta "Inkestaren Emaizten Txostena. 2007.urtea. Maiatzeko astea Donostiako aireportuan"tik eskuratu dira, bata zein bestea AENAK elaboratuta eta 2010an argitaratua.


3.2.4.1 Joan-etorriaren arrazoa

Terminalei burututako inkestetan lortutako datuen arabera, Loian burutzen diren joan-etorrien herena lan arrazoiengatik izan ohi da (%34), aisiak jarraituta. Aisia jarduerak burutzeko aireportua erabiltzen duten bidaiarien areagotzea hiru arrazoiari zor zaie: (i) EAEko pertsona bidaiarien areagotzea, 2010an Euskadi bisitatu zuten turisten azken hamar urteetako zifra altuena erregistratu zen, (ii) Bizkaiko aireportuko low-cost bidaiaren eskaintza handiagoa Easy Jet (Londres, Roma eta Manchester) eta Vueling (Amsterdam, Milan, Bartzelona, Malaga eta Sevilla) konpainien bitartez, eta (iii) helmuga oporraldi nazionaletan duten hegaldien eskaintza Malaga, Palma de Mallorca edo Tenerifera, esaterako.

Hondarribiko aireportuari dagokionez, Loiuarekin gertatzen den lez, erabileraren arrazoi nagusia jarduera profesionala da (%36,2), ikasketa (%23) eta aisiagatik (%15,6) jarraitua.



Grafiko 12 Irteera Hondarribiko eta Loiuo aireportuetan duten joan-etorrien arrazoa edo motiboa. 2011.urtea.




Iturria: Garraio terminalei inkesta. Elaborazio propioa.

3.2.4.2 Aireportuetarako sarbide mota

Euskal aireportuetara joateko gehien erabiltzen den garraio modala autoa da, izan daiteke ibilgailu pribatuan edo alokatutako autoan. Bigarren postua taxiak eskuratzen du, eta autobusak kasu bakoitzean erabilpen maila murriztagoa eta ezberdina du. Loiu garraiobide honen barneratze kuota %29,4koa da, eta Hondarribian portzentaje hau %5,2raino murrizten da. Hala ere, nahiz eta bi portzentajeak murriztak direla kontsideratu daitezkeen arren, bi kasuetan 2006ko datuekin alderatuz gorakada bat nabaritu da, zeinak Loiuan %7an eta Hondarribian %1ean kokatzen baitziren. Zentzu honetan garraio publikoaren eskaintzak bere erabileraren⁷ hobekuntza ekarri du.

⁷ 2008ko ekainaren 18an Lurraldebusen Loiu eta Donostiaren artean herriarteko autobus linea zuzen bat jarri zuen martxan. Gaur egun, linea honek funtzionamenduan jarraitzen du.

Grafiko 13 Irteera Hondarribiko eta Loiuo aireportuetan duten bidaiarien sarbide mota. 2011.urtea




Iturria: Garraio terminalei inkesta. Elaborazio propioa.

3.2.4.3 Joan-etorrien jatorrizko probintzia

Loiuo aireportuko erabiltzaileen %85ak jatorria EAEn du, batez ere, Bizkaian (%68). Hala ere, azpiegitura honek probintziaz gaineko rol bat darabil, izan ere, lautik pertsona batek jatorria Lurralde Historikoetatik kanpo du: Gipuzkoa (%12), Araba (%5), Kantabria (%7), Nafarroa (%3), eta Errioxa (%2).


Grafiko 14 Irteera Loiuo aireportuan duten joan-etorriak jatorrizko probintziaren arabera. 2007.urtea.



Iturria: Aena. 2007ko Inkestean Emaitzen Urteko Txostena. Bilboko Aireportua.



Grafiko 15 Irteera Loiuko aireportuan duten joan-etorriak jatorrizko probintziaren arabera. 2007.urtea




Alderaketa bat eginez, Hondarribiko aireportuak orientazio oso probintziala du, izan ere, pertsona bidaiarien %90,8ek jatorria Gipuzkoan baitute. Frantziatik %8,5a dator batez ere, Madrilera dituen hegaldi eskaintzarengatik. Espainiako beste lurralde batzuen presentzia txikia da, izan ere, Nafarroatik %0,4 baitator eta gelditzen den %0,3 EAEko gainontzeko lekuetatik.

Iturria: Aena. 2007ko Maiatzeko Asteko Inkesta Emaitzen Txostena. Donostiako Aireportua.

3.2.4.4 Aireportuetako erabiltzaileen jatorri nagusiak


Irteera Loiuko aireportutik duten pertsona bidaiarien jatorrizko udalerrria aztertuz, ikusten da Bilbo dela portzentaje altuenak biltzen dituen hiria praktikoki %37rekin, Bilbo Handiko inguruko herriek jarraituz, hala nola, Getxo, Leioa eta Barakaldo zeinak pertsonen %10,9 ordezkatzeko baituten. Azkenik, EAEko gainerako hiriburuetatik datozen bidaiariak ere eskuratzen dute halako garrantzia txiki bat, izan ere, Donostiatik pertsona bidaiarien %5,2 joaten baita eta Vitoria-Gasteiztik %4,2.

Grafiko 16 Irteera Loiuuko aireportuan duten pertsona bidaiarien jatorria. 2007.urtea.



Iturria: Aena. 2007ko Inkestean Emaitzen Urteko Txostena. Bilboko Aireportua.


Grafiko 17 Irteera Loiuuko aireportua duten pertsonen jatorrizko udalerrien mapa. 2007.urtea.



Iturria: Aena. 2007ko Inkestean Emaitzen Urteko Txostena. Bilboko Aireportua.


Hondarribiko aireportuaren kasuan, bertatik gertu dauden hiriburu eta herriak dira pertsona bidaiarien jatorrien gehiengoa biltzen dituzten lekuak. Horietatik %58,9 Donostiatik datoz, %18,5 Bidasoa Behereko eskualdetik eta %7,9 Iparraldetik.

Grafiko 18 Irteera Hondarribiko aireportuan duten pertsonen jatorria. 2007.urtea.



Iturria: Aena. 2007ko Maiatzeko Asteko Inkesta Eraitzen Txostena. Donostiako Aireportua.


Grafiko 19 Irteera Hondarribiko aireportuan duten pertsonen jatorrizko udalerrien mapa. 2007.urtea.



Iturria: Aena. 2007ko Maiatzeko Asteko Inkesta Eraitzen Txostena. Donostiako Aireportua. Iturritik hartutako jatorrizko irudia.

Portzentajeak batez besteko egun batean bidaiarien zenbakietara igarotzen badira, Bilboko aireportuak Gipuzkoako probintziatik datozen pertsonak biltzeko duen gaitasunaren garrantzia agerian jartzen da, eguneko 383an kokatuz, zeina Hondarribiko aireportuko instalazioen Gipuzkoako erabiltzaileen zifra baino askoz ere handiagoa baiten (230). Gainera, bi aireportuen artean Donostiatik datozen bidaiarien diferentzia ere murriztu egin da, izan ere, Hondarribitik egunero Gipuzkoako hiriburutik datozen 424 pertsona ateratzen baitira eta Loiu zifra hau 302an kokatzen baita.

Grafiko 20 Irteera Hondarribi eta Loiuako aireportuetan duten pertsonen jatorrizko udalerrriak. 2007.urtea. Absolutuak




Iturria: Aena.2007ko Maiatzeko Asteko Inkesta Emaizten Txostena. Donostiako Aireportua eta 2007ko Inkesten Emaizten Urteko Txostena. Bilboko Aireportua.

3.2.4.5 Pertsona bidaiarien zirkulazioa beste aireportuekin

Loiuko aireportuko pertsonen zirkulazioa, batez ere, Madrilgo eta Bartzelonako aireportuekin egiten da. Batez ere esanguratsua Madrilekin duen zirkulazioa da, izan ere, Loiuko bidaiarien %27,2ak jatorria edo helmuga Barajasen baitu, eta Prat aireportuak %17,4 biltzen baititu. Atzerriko helmuga nagusia Londres da Loiuko %5,7ko zirkulazioarekin.




Grafiko 21 Pertsonen zirkulazioa Loitutik beste aireportuetara. 2007.urtea



Iturria: Aena. 2007ko Inkesten Emaitzen Urteko Txostena. Bilboko Aireportua.

Hondarribiko aireportuko pertsonen zirkulazioa praktikoki Madrilen (%76,3) eta Bartzelonaren (%19,1) artean banatzen da.

Grafiko 22 Pertsonen zirkulazioa Hondarribitik beste aireportuetara. 2007



Iturria: Aena. 2007ko Maiatzeko Asteko Inkesta Emaitzen Txostena. Donostiako Aireportua.



3.3 Trenbide bidezko garraioa

EAE n pertsonen garraio zerbitzua eskaintzen duten trenbide operadoreak honakoak dira: Euskotren, RENFE, FEVE, Euskotran eta Bilboko Metroa.

3.3.1 Euskotren

Euskotrenen zerbitzuen eskaintza oinarrizko hiru ibilbideen artean egituratzen da:

- Bilbo- Bermeo
- Deustu- Lezama
- Bilbo- Hendaia

Ibilbide hauetatik abiatuta guztira 12 linea konfiguratu dira, non horietatik batzuk ibilbide guztia burutzen baituten, eta beste batzuk zerbitzua ibilbide tarte batean bakarrik baituten.

3.3.1.1 Urteko joan-etorriak

Euskotrenek 2010ean 17,96 milioi pertsona garraiatu zituen, zeinak 2006ko datuekin alderatuz %7,1eko beherakada suposatzen baituen. Gipuzkoa da pertsona erabiltzaile kopuru handiena duen lurralde historikoa (%63), Bizkaiak, aldiz, gutxiago (%37).


Taula 28 Batez besteko lanegunean Euskotrenen lineetako urteko joan-etorriak. 2010

PROBINTZIA	LINEA	URTEKO JOAN-ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK
Bizkaia	Txorierrri	1.915.064	6.604
	Bilbo- Amorebieta	1.848.988	6.376
	Bermeo- Amorebieta	1.024.998	3.534
	Durango- Ermua	859.626	2.964
	Durango- Amorebieta	374.293	1.291
	Reinetako Funikularra	175.244	604
Guztira Bizkaia		6.198.212	21.373
Gipuzkoa	Donostia- Hendaia	5.590.693	19.278
	Zumaia- Donostia	1.798.695	6.202
	Ermua- Eibar	1.361.697	4.696
	Donostia- Lasarte	1.001.794	3.454
	Eibar- Zumaia	702.847	2.424
	Azpeitia- Lasaoko Museoa	36.795	127
Guztira Gipuzkoa		10.492.521	36.181
GUZTIRA		16.690.733	57.554

Iturria: Euskotren.

Gehien erabiltzen den linea Donostia- Hendaiaarena da (%33,5), Txorierri jarraituz (%11,5), gero Bilbo- Amorebietak (%11,1) eta Zumaia- Donostiak (%10,8).

Grafiko 23 Euskotreneko lineetako joan-etorriak. Batez besteko laneguna. 2010



Iturria: Euskotren.

3.3.1.2 Joan-etorri motak


2010ean batez besteko lanegun batean Euskotrenen burutzen diren joan-etorriak 57.554 zifretara igotzen dira. Joan- etorrien tipologiari dagokionez, %86,4 probintzia beraren baitan gertatzen da, eta %10,7 Bizkai eta Gipuzkoaren arteko elkarrekikotasunari dagozkienak dira. Azkenik, bidaiatzen duten pertsonen %2,8ak burututako joan-etorriak EAetik kanpokoak direla balioztatu da, hain zuzen, Donostia- Hendaia linearen bitartez, herri frantziar honetatik bere bidaia hasi zein bukatuz.

Taula 29 Euskotrenen burututako joan-etorriak motaren arabera. Batez besteko laneguna. 2010.

	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Udalerrri barnekoa	9.148	%15,9
Eskualde barnekoa	25.345	%44,0
Lurralde barnekoa	15.248	%26,5
Lurraldeen artekoa	6.185	%10,7
Guztira barnealdekoak EAE	55.926	%97,2
Kanpoaldekoa – Hendaia*	1.628	%2,8
GUZTIRA	57.554	%100,0

Iturria: Euskotren eta Etxebizitza Inkesta.*2006ko datuetatik abiatuta balioztatutako datua.

Grafiko 24 Euskotrenen burututako joan-etorriak motaren arabera. Batez besteko laneguna 2010.



Iturria: Euskotren eta Etxebizitza Inkesta. Elaborazio propioa

Gipuzkoan batez besteko lanegun batean, probintzien barneko joan-etorriak dira pertsona kopuru handiena biltzen dituztenak (37.014, %64,3 ordezkatuz), Bizkaiko probintzia barneko joan-etorriek jarraituz (%22,1). Lurraldeen arteko joan-etorriek ordezkaritza oso txikia dute eta inolako kasuetan ez dute gainditzen %6a.

Taula 30 Euskotrenen burututako joan-etorrien jatorri-helmuga probintzia matrizea. Batez besteko laneguna.2010.

JATORRIA/HELMUGA	BIZKAIA	GIPUZKOA	KANPOALDEA	GUZTIRA
Bizkaia	12.728	3.001		15.729
Gipuzkoa	3.183	37.014	787	40.984
Kanpoaldea		841		841
Guztira	15.911	40.856	787	57.554

Iturria: Euskotren.

3.3.2 RENFE Aldiriak

RENFEk Bizkaiko lurraldean hiru linea aldiri eskaintzen ditu eta beste bat Gipuzkoan.

- C-1: Bilbo - Santurtzi
- C-2: Bilbo - Muskiz
- C-3: Bilbo - Urduña
- C-1: Brinkola - Irun



RENFE Aldirietako lineek 2010ean 21,5 milioi pertsona garraiatu zituzten, zeinak 2005eko datuekin alderatuz %26,5 murriztapena suposatzen baituen. Batez besteko lanegun bateko joan-etorri terminoetan, 74.247 zifratan kokatzen da. Bizkaiko lurraldeko lineek pertsona erabiltzaileen %66,1 biltzen dute, eta Brinkola- Irun lineak geratzen den %33,9 biltzen ditu. Erabiltzaile kopuruaren beherakada hau, neurri handi batean, Ezkerreko Margenetik Santurtziraino Metroko 2.linearen hedapenari dagokio, RENFEk zonalde honetan eskaintzen duen zerbitzuaren konpetentzia zuzena.

Taula 31 RENFE Aldirien urteko eta batez besteko laneguneko joan-etorriak. 2010

ALDIRIAK	URTEKO JOAN- ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK
Bilboko ⁸ erdigunea	14.236.035	49.090
Donostiako ⁹ erdigunea	7.295.473	25.157
GUZTIRA	21.531.508	74.247

Iturria: Renfe.

3.3.3 Herriarteko RENFE

Herriarteko RENFE zerbitzuek 2010ean guztira 304 milioi pertsona garraiatu zituzten, zeinak batez besteko lanegun batean 1.049ko zifra ordezkatzeko baituen. 2005eko datuekin alderatuz, zifra honek %25eko murrizketa suposatzen du.

Joan-etorrien jatorriari dagokionez, %75,3 Araban kokatzen da eta gainerakoa Gipuzkoan biltzen da, zerbitzu mota honek ez du eskaintzarik Bizkaian.

⁸ Bilboko erdigunea honako lineek operatzen duten geltoki aldiriek osatzen dute, C1 Bilbo Abando- Santurtzi, C2 Bilbo Abando- Muskiz eta C3 Bilbo Abando- Urduña, honako udalerrietan: Santurtzi, Portugalete, Sestao, Barakaldo, Bilbo, Basauri, Arrigorriaga, Muskiz, Gallarta, Ortuella, Trapagako bailara, Ugao- Miraballes, Arrankudiaga, Arakaldo, Audio, Amurrio eta Urduña

⁹ Donostiako erdigunea honako lineek operatzen dute geltoki aldiriek osatua, linea C1- Irun Brinkola honako udalerrietan: Legazpi, Zumarraga, Ormaiztegi, Beasain, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Anoeta, Billabona- Zizurkil, Andoain, Urnieta, Hernani, Donostia, Pasaia, Lezo- Erreterria eta Irun.




Taula 32 Urteko eta batez besteko lanegun bateko joan-etorriak Herriarteko RENFE tren zerbitzuaren jatorriaren arabera. 2010.

PROBINTZIA	GELTOKIA	URTEKO JOAN-ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Araba	Agurain- Salvatierra	10.916	38	%3,6
	Alegria- Dulantzi	5.288	18	%1,7
	Araia	3.840	13	%1,3
	Estivaliz- Oreita	17	0	%0,0
	Manzanos	896	3	%0,3
	Nanclares- Langraiz	6.343	22	%2,1
	Vitoria-Gasteiz	201.866	696	%66,3
Guztira Araba		229.166	790	%75,3
Gipuzkoa	Beasain	8.351	29	%2,7
	Irun	8.818	30	%2,9
	Legazpi	3.549	12	%1,2
	Lezo- Erreterria	3.237	11	%1,1
	Ordizia	5.056	17	%1,7
	Pasaia	422	1	%0,1
	Donostia	25.276	87	%8,3
	Tolosa	8.542	29	%2,8
	Zegama- Otzaurte	29	0	%0,01
	Zumarraga	11.828	41	%3,9
Guztira Gipuzkoa		75.108	259	%24,7
GUZTIRA EAE		304.274	1.049	%100,0

Iturria: Renfe.

Vitoria-Gasteizko geltokian zerbitzu hauen erabiltzaileen kontzentrazio handia dago (%66,3), Donostiakoak jarraituz (%8,3). Gainontzeko geltoki guztiak %4ren azpian kokatzen dira.

Grafiko 25 Herriarteko RENFE zerbitzuko joan-etorrien gorakako estazioa banaketa.



Iturria: Renfe.

3.3.4 Ibilbide Luzeko RENFE

2010.urtean EAEn RENFEko linea handiko zerbitzuetan erregistratutako joan-etorrien kopuru totala 453.157 zifretara igo da, zeinak batez besteko lanegun bateko 1.563 joan-etorri ordezkatzen baitituen. 2006ko datuekin alderatuz erabiltzaileen kopurua %25 igo da, eta hau Altaria zerbitzu berrien abiaraztearen bidez azaldu daiteke.

Ibilbide luzeko linea ezberdinetako pertsona erabiltzaileen erdiak baino gehiagok euren joan-etorrietako jatorri gisa Gipuzkoako geltokiren bat du, Bizkaiak %27,1 biltzen ditu eta Arabak geratzen den %17,6.

Taula 33 Urteko eta batez besteko lanegun bateko joan-etorriak erregistratutako ibilbide luzeko RENFE tren zerbitzuen jatorriaren arabera. 2010

JATORRIZKO PROBINTZIA	URTEKO JOAN- ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Araba	79.635	275	%17,6
Bizkaia	122.929	424	%27,1
Gipuzkoa	250.593	864	%55,3
GUZTIRA EAE	453.157	1.563	%100,0

Iturria: Renfe. Elaborazio propioa.

3.3.5 Feve

FEVEk EAEn ondorengo lineen zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Bilbo – Balmaseda (aldiriak)
- Bilbo – Santander (herriartekoa)
- Bilbo – Leon (herriartekoa)

EAEn FEVE trenbide zerbitzuen eskaintza lurralde bizkaitarrera mugatzen da.





3.3.5.1 Urteko joan-etorriak

2011n FEVEko hiru lineek 1,47 milioi pertsona garraiatu zituzten, Kantabriako eta Gaztela eta Leoneko¹⁰ hainbat joan-etorri barne hartuz. 2006ko datuekin alderatuz zifra honek %17ko beherakada suposatzen du.

Murrizketa honen kausa posibleetako bat Bilbo eta Balmasedaren arteko Autobideko autobus zerbitzu berrien konpetentzia izan daiteke, zeinak behin Kadaguako Errepidelaria (BI-636) amaitzean errepide bidez lortutako denbora murrizketa aprobeztatzen duten.

Pertsona erabiltzaileen ia guztiak Bilbo-Balmaseda linean biltzen dira (%91,5), Bilbo-Santanderrekoak %,6,6 suposatzen du eta Bilbo-Leonekoak geratzen den %2,0. Batez besteko lanegun bateko pertsona bidaiarien zifra 5.071koa da.

Taula 34 FEVE lineetako urteko joan-etorriak. 2010.

2010.urtea	URTEKO JOAN- ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Bilbo- Balmaseda	1.345.033	4.638	%91,5
Bilbo- Santander *	96.394	332	%6,6
Bilbo- Leon *	29.278	101	%2,0
GUZTIRA	1.470.705	5.071	%100

Iturria: FEVE. () Lineako bidaiari guztiak, EAEkoak izan ala ez.*

3.3.5.2 Joan-etorri motak

2010ean EAE jatorri edo helmuga gisa duten joan-etorriak 1.427.372ra igotzen dira, zeinak lanegun batean 4.922 pertsonetako zifra suposatzen baituen. Joan-etorri hauen gehiengoak barne izaera du (%96,4), eta bitartean, jatorria edo helmuga kanpoaldean dutenak soilik %3,6 ordezkatzen dute.


Taula 35 FEVEN urteko eta batez besteko lanegun bateko joan-etorriak motaren arabera. 2010

MOTA	URTEKO JOAN- ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
EAE barnekoak	1.375.965	4.745	%96,4
Kanpoaldekoak	51.407	177	%3,6
GUZTIRA	1.427.372	4.922	%100,0

Iturria: FEVE.

¹⁰ Bilbo – Santander eta Bilbo- Leon herriarteko trenen lineek erabiltzaileen zifra totala gehitzen da jatorria eta helmuga bereizi gabe.

Grafiko 26 Joan-etorriak FEVEn motaren arabera. 2010



Iturria: FEVE.

3.3.6 Euskotran

Gaur egun Euskotran Bilbon eta Vitoria-Gasteizen linea urbanoen bideetan aritzen da. Tranbiak Bilbon 2002an ekin zion bere lanari. Vitoria-Gasteizen lehenengo adarra 2008ko abenduaren aurreneko fasean inauguratu zen, Abetxukorako eskaintza osatuz 2009ko uztailean.

2002an martxan jarri zenetik Bilboko tranbiak pertsona bidaiarien kopuruaren gorakada nabaritu izan zuen, maximoa edo gehiengoa 2006an lortuz eta 3 milioien inguruan kokatuz, baina momentu horretatik aurrera zifra hau behereka hasten da eta 2,8 milioi pertsonetan gelditzen da. Vitoria-Gasteizeko tranbiak 2010ean 6,9 milioi erabiltzaile eskuratu ditu.

Taula 36 Bilboko eta Vitoria-Gasteizko Tranbietan urteko eta batez besteko lanegun bateko joan-etorriak.

	URTEKO JOAN- ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Bilbo	2.849.608	9.826	%29,0
Vitoria-Gasteiz	6.977.841	24.062	%71,0
GUZTIRA	9.827.449	33.888	%100,0

Iturria: Euskotran

3.3.7 Bilboko Metroa

Bilboko Metroak 2010.urtean guztira 88,5 milioi pertsona garraiatu zituen, zeinak batez besteko lanegun batean 305.366 joan-etorri adierazten dituen. 1995ean zerbitzua martxan



jarri zenetik hau da pertsona erabiltzaileen zifrarik altuena. 2006ko ikerketako datuei erreferentzia eginez, %11ko gorakada suposatzen du. Igoera hau neurri handi batean, Ezkerreko Margenetik 2 linearen hedapenari zor zaio, Sestao, Portugalete eta Santurtzi udalerriei zerbitzua emanez.


Geltoki bakoitzeko operadoreak erraztutako datuetatik abiatuz, erabiltzaileek burututako joan-etorriaren tipologia ezagutzen saiatu da. Sarearen konfigurazio propioagatik, burutzen diren joan-etorri ia guztiak eskualde barnekoak dira (%96,2), eta eskualdeen artekoak pisu txikia eskuratzen dute %3,8.

Taula 37 Bilboko Metroan urteko eta batez besteko lanegun bateko joan-etorriak motaren arabera. 2010

BIDAI MOTA	URTEKO JOAN-ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN-ETORRIAK	%
Eskualde barnekoa	85.184.707	293.740	%96,2
Eskualdeen artekoa	3.371.574	11.626	%3,8
EAE BARNEALDEKOAK	88.556.281	305.366	%100,0

Iturria: Bilboko Metroa.


Grafiko 27 Bilboko Metroko joan-etorriak tipologiaren arabera. 2010



Iturria: Bilboko Metroa.

Jarrian, Bilboko Metro geltoki nagusietako datuak aurkezten dira, batez besteko lanegun batean horietako bakoitzean erregistratutako joan-etorri kopuruaren arabera.

Grafiko 28 Bilboko Metro geltoki nagusietako joan-etorriak. Batez besteko laneguna.2010.



Iturria: Bilboko Metroa.

3.3.8 Trenbide eskariaren laburpena

2010.urtean batez besteko lanegun batean EAEn trenbide modalean 478.589 joan-etorri burutu ziren, zeinak 2006ko datuekin alderatuz, %5,1eko gorakada suposatzen baituen. Aldaketa hau, batez ere, Bilboko Metroak eta Tranbiak izan duten pertsona bidaiarien gorakadari dagokio.

Joan-etorriaren tipologiari dagokionez ia guztiak EAEko barnealdeko joan-etorriei dagozkie (%99,2).

Taula 38 Joan-etorriak trenbide operadorearen arabera. Batez besteko laneguna. 2010

	EUSKOTREN	RENFE			FEVE	TRANBIA	METROA	GUZTIRA
		ALD.	HER.	IBI.L*.				
Barnealdekoak	55.926	74.247	582	52	4.745	33.888	305.366	474.805
Kanpoaldekoak	1.628*		467	1.511	177			3.783
GUZTIRA	57.554	74.247	1.049	1.563	4.922	33.888	305.366	478.589

Iturria: Operadoreek erraztutako datuak.


* EAEko Garraio Eskariaren Irudia. 2006.urtea txostenetik abiatuta balioztatutako datuak.



3.3.8.1 Operadoreen banaketa

Bilboko Metroak jarraitzen du pertsona kopuru handiena garraiatzen duen operadorea izaten, 2006ko datuekin alderatuta bere emaitzak igoaz gainera (%63,8). Bigarren talde batek jarraitzen dio Renfe Aldiriak (%15,5), Euskotrenek (%12) eta tranbiak (%7,1) osatuz. Azkenik, hirugarren talde bat identifikatzen da, zeinetan ez dagoen operadorerik merkatu kuota %1 baino altuagoa duenik. Azken hau FEVEk (%1) eta Renfek osatzen dute, Ibilbide Luzeko (%0,3) eta Herriarteko zerbitzuek (%0,1), hain zuzen.

Grafiko 29 Trenbide operadoreen merkatu kuotaren banaketa. 2010



Iturria: Operadoreek erraztutako datuak.

3.4 Pertsonen kable bidezko garraioa

EAEn pertsonen garraiora zuzendutako kable bidezko bederatzia instalakuntza aurkitzen dira (igogailuak ea funikularrak). 2010.urtean mekanismo hauen pertsona erabiltzaileen kopurua 3.174.296ra igo zen, zeinak batez besteko lanegun batean 10.946 zifrako ordezkariak baituen. Modal hauen bitartez burututako joan-etorrien %57,1 funikularraren bitartez egiten dira, eta geratzen den %42,9 igogailuen artean banatzen da. Garrantzia berezia Mamariagako funikularrak eta Solokoetxeko igogailuak eskuratzen dute, izan ere, bi kasuetan modal hauetan burututako bost joan-etorrietatik bat baino gehiago biltzen baitituzte.

Taula 39 Kable bidezko garraioetan burututako joan-etorriak.

	INSTALAKUNTZA	URTEKO JOAN- ETORRIAK	BATEZ BESTEKO LANEGUNEKO JOAN- ETORRIAK	%
Funikularra	Artxandako funikularra	523.514	1.805	%16,5
	Igeldoko funikularra	373.303	1.287	%11,8
	Larreinetako funikularra	175.244	604	%5,5
	Mamarigako* funikularra	740.468	2.553	%23,3
Guztira Funikularra		1.812.529	6.250	%57,1
Igogailua	Begoñako igogailua	417.875	1.441	%13,2
	Solokoetxeko igogailua	674.892	2.327	%21,3
	Ereagako igogailua	269.000	928	%8,5
	Arangoitiko igogailua	Daturik gabe		
	Salveko igogailua	Daturik gabe		
Guztira Igogailua		1.361.767	4.696	%42,9
GUZTIRA		3.174.296	10.946	%100,0

* Mamarigako Funikularreko datuak 2011ri dagozkionak dira.

Arangoitiko eta Salveko igogailuen datuek ez daude eskuragarri izan ere doakoak baitira.

Iturria: Oteus.

Joan-etorri hauek guztiak barnealdekoak dira, hau da, jatorria eta helmuga EAEn kokatzen dira. Garrantzia berezia Bizkaian burututakoek eskuratzen dute (%88,2), Igeldoko funikularra izan ezik praktikoki instalazio guztiak biltzen baitira. Gipuzkoak biltzen ditu geratzen diren joan-etorrien %11.

Joan-etorrien zenbatekoa, datuak eskura dauden 2010 eta 2006ko¹¹ instalazioetan, laur urteko epean %11,6 murriztu da, 2006an 2,7 milioi pertsona erabiltzaile izatetik 2010ean 2,4 milioi izatera igaroz.

3.5 Laburpena eta ondorioak

Atal honetan 2010.urterako batez besteko lanegun bateko joan-etorrien garraio eskari totala aurkezten da, aztertutako garraio modal bakoitzetik erantsiak (ibilgailu arinak, autobusa, trenbidea, kablea eta hegazkina).

¹¹ Alderaketa datuak eskura dauden instalakuntzena egin da, bai 2006koena eta baita 2010ekoena, hau da: Begoñako igogailua, Solokoetxekoa eta Ereagakoa, eta Artxandako, Igeldoko eta Larreinetako funikularra.



3.5.1 Joan-etorri motorizatuak EAEn


2010ean EAEn batez besteko lanegun batean joan-etorri motorizatuen kopurua 3,4 milioitan kokatzen da, zeinak 2006ko datuekin alderatuz %4,3ko beherakada txiki bat adierazten baituen. Burutzen diren joan-etorri guztiak praktikoki barnealdekoak dira (%92,4), beste %7,1ek kanpoaldeko izaera dute eta geratzen den %0,5 iragaitzan aurkitzen diren pertsonen dagokie.

Taula 40 Joan-etorriak garraio modal eta motaren arabera. Batez besteko laneguna. 2010

	IBIL. ARINA	AUTOBUSA	TRENBIDEA	KABLEA	HEGAZKINA	GUZTIRA
Barnealdekoak	2.179.286	518.213	474.805	10.964		3.183.268
Kanpoaldekoak	220.042	6.994	3.783		14.451	245.270
Iragaitzakoak	15.673	332				16.006
GUZTIRA	2.415.000	525.540	478.589	10.964	14.451	3.444.544

Iturria: Operadoreek erraztutako datuak. Etxebizitza Inkesta eta terminalako Inkesta. Elaborazio propioa.

Grafiko 30 Joan-etorriak motaren arabera. 2010




Iturria: Operadoreek erraztutako datuak. Etxebizitza Inkesta eta terminalako Inkesta. Elaborazio propioa.

Azken lau urteetan pertsonen joan-etorrien bilakaerak horien tipologiaren arabera, ez du aldaketa esanguratsurik erakusten. Barnealdeko joan-etorriek ordezkaritza handiena izaten jarraitzen duten %90 gaingaituz eta bere kuotaren erregistroa pixka bat igoaz, eta bitartean, kanpoaldekoak eta iragaitzakoak murrizketa txiki bat erregistratu dute.



Grafiko 31 2006-2010 periodoko joan-etorrien bilakaera tipologiaren arabera.



Iturria: EAEko Garraio Eskariaren Irudia. 2006.urtea, Etxebizitza Inkesta, terminaletako Inkesta eta garraio operadoreek erraztutako datuak. Elaborazio propioa.


3.5.2 Modal banaketa

Ibilgailu arinak (autoa, motozikleta eta taxia) jarraitzen du EAEn burutzen diren bidaietan erabiltzen den garraio-bide nagusia izaten. Modal hauek %70,1eko barneratze kuota eskuratzen dute. Autobusak eta trenbideak bigarren eta hirugarren postua hartzen dute, hurrenez hurren, bien arteko diferentzia txikia izanik. Autobusak %15,3 biltzen ditu eta trenbideak %13,9. Azkenik, hegazkina pertsona bidaiarien %0,4an kokatzen da, eta kable modalek soilik %0,3 biltzen dituzte.

Trenbidea izan da 2006ko datuekin alderatuz bere kuota gehien igo duen garraio-bidea ehuneko 1,2 punturekin. Gorakada hau Vitoria-Gasteizeko eta Bilboko Tranbian eta bigarrenko kasuan baita Metroan ere, pertsona erabiltzaileen kopuruaren igoerari zor zaio. Bere barneratze kuota pixka bat igotzea lortu duen modala hegazkina izan da ehuneko 0,2 punturekin. Ibilgailu arina mantendu egin da, eta autobusak bere kuota murriztu egin dela ikusi du, 2006ko datuekin alderatuz, ehuneko 1,4 puntuko diferentziarekin.



Grafiko 32 Joan-etorriak garraio modalaren arabera. 2010




Iturria: Operadoreek erraztutako datuak. Etxebizitza Inkesta eta terminaletako Inkesta. Elaborazio propioa.

Joan-etorrien tipologia guztietan ibilgailu arina garraio modal liderra izan arren, eta baita barneratze kuota altuena biltzen duena ere, ezberdintasunak ageri dira joan-etorri motaren arabera. Hori dela eta, barnealdeko joan-etorrietan autobusak eta trenbideak, hurrenez hurren, %16,3 eta %14,9ko kuota eskuratzen duten bitartean, kanpoaldeko joan-etorrietan portzentaje hau %2,9 eta %1,5era jaisten da hurrenez hurren, aldiz, hegazkinak garrantzia handiagoa eskuratzen du, %5,9ko portzentajera iritsiz.

Garraio modal ezberdinen barneratze kuotaren bilakaerari dagokionez, 2006ko datuekin alderatuz ez da aldaketa esanguratsurik nabaritzen. Ibilgailu arinak bere lidergo postua mantentzen jarraitzen du. Autobusak ehuneko 1,4 puntuetako beherakada txiki bat nabaritu du, zeina trenbideaz konpentsatua izan baiten. Kableak eta hegazkinak bigarren mailako postua mantentzen jarraitzen dute, eta beraien barneratze kuotan ez dute aldaketa esanguratsurik nabaritu.

Grafiko 33 Garraiobide¹² ezberdinen barneratze kuotaren bilakaera.



Iturria: EAEko Garraio Eskariaren Irudia. 2006.urtea, Etxebizitza Inkesta, terminaletako Inkesta eta garraio operadoreek erraztutako datuak.

3.5.3 Ondorio nagusiak

- ✓ 2010ean EAEn batez besteko lanegun batean burututako joan-etorri motorizatuen kopurua 3,4 milioitan kokatzen da, zeinak 2006ko datuekin alderatuz %4,3ko beherakada txikia nabaritu baituen.
- ✓ Ibilgailu arinak 2010ean barneratze kuotaren lidergoa mantentzen jarraitzen du (%70,1), batez besteko lanegun batean 2.415.000 joan-etorriko zifrarekin. Hala ere, 2006ko datuekin alderatuz %4,2ko beherakada nabaritu da, izan ere, lehen guztira 2.520.800 zifretan kokatzen baitzen.
- ✓ Joan-etorriaren distantziaren eta ibilgailu arinetako pertsona laguntzaileen portzentajearen artean erlazio zuzena nabari da, distantzia handiagoa denean, portzentaje hau handiagoa da. Barnealdeko joan-etorrietan pertsona erabiltzaileen %84,1 gidariak dira eta %15,9 laguntzaileak, eta beste muturrean, kanpoaldeko joan-

